

SAN JOAN BATAIATZAILEA ELIZAREN ALDI HISTORIKOAK

AURRE XEHETASUNAK

Badirudi XV. mendean funtsean eginik zegoela gaurregun ezagutzen dugun goiko eliza. Gerotik, ordea, zenbait erreforma eta eraberrikuntza jasan izan zituen. Adibidez, ifar eta hego aldetara kaperak erantsi zitzaizkion arkuz, sabaiz eta teilatuz hornituak. Elizaurrea eta kanpandorrea ere eraldatuak izan ziren.

Guzti hauen berri zehazkiago ematen dugu ondoko lerroetan.


ELIZ ERAIKUNTZAREN EBOLUZIOA (1557 - 1630)


Udal artxibategian dagoen eskuizkribu batek dioenez, Domingo de Sanz Sorok, Aiako hargin maisua berau, bere gain hartu zuen sei urtetan goiko eliza zabaldu eta erreformatzeko erantzukia 1.600 dukaten truke, Lezoko bikario eta eliz ugazabekin egindako akordio baten bidez, 1.557.go Maiatzaren 23an.

Ordurako hornitua aurkitzen zen ifarraldeko hormaren arabera egin beharra zuen hegoaldekoa, hiru kaperaz osatua. Erdiko kaperara, ordea, alboko atari bilakatuko zen (gaurregun goiko plazara ematen duena, alegia). Hemen, ezkerreko kontrahorman, ate bat irekiko zen goragoko kaperatxora pasatzeko, non bataioko ponteak kokatuko bait zen.

Elizaren aurrekaldeko eta alboko atariak Usurbilgo elizakoaren jite eta tankera berekoak beharko zuten izan. Kanpandorrea eta kororako eskailerak, berriz, Errenteriako eliz nagusiaren erakoak.

Eliz langintza guztia Jaizkibelgo hondar harriz, ohi bezala, eta lehengo eliz zaharreko materialez burutuko zen.





ERRETAULA NAGUSIA ETA ALBOKO ALDAREAK (1628 - 1667)

1628tik hasita 1663 urte bitartean aldare nagusiko erretaulan egin ziren lanen aipamenak datozkigu, zeinetan Migel Goroa entsanblari asteasuarra eta Diego Maiora eskulturgile segurarra ihardun zien (1628-1635). Ondoren, Otxa Arin jauna erretaula erreztatzeari eman zitzaion (1656-1663). Migel Goroa eta Diego Maiora, zinez, Ambrosio Bengoetxea ospetsuaren eskolakoak bide ziren.

1633-1676ko epean alboko kaperetako aldareen berriak ditugu, hala nola: Antiguako Andre Maria, San Jose, Trinitate, San Sebastian eta Karmengo Andre Mariarenak. Azken kapera hau Lezoandiako aiton- seme zen Joan Nuñez de Yerobiren sendiari zegokion. Erretaula nagusiaren aldamenteko aldareak oso berandukoak dira (1892)

GAURDAINOKO AZKEN EGINLANAK KOROA (1710-1931)

1710ean erretaula berriz erreztatzeko fundazioa sortu zen F. Zubitola jaunak.

1813 eta 1814an goiko elizan alokaturik egon ziren ingeles gudarosteak frantsesei aurre egiteko. Han egon ziren bitartean eginiko kalteen zerrenda, beren gosto eta guzti, iritsi zaigu paper zaharretan.

1825an Franconi margolari italiarrak eliz barnea kareztatu eta margotu egin zuen, Gurutze Santuaren santutegian bezalaxe.

1892-1894an, eta Kortazar arkitektoaren gidaritzapean, koruko balkoneria eraiki zen eta leihoa ireki gaurregun dagoen organoa ezartzeko. Aldi berean, ezker-eskuineko arku konopialak eta punduerdiko leihoa ere irekiak izan ziren eta eliz aterbeko eginlanak zuzenduak. Hiru urte geroago, beheko plazatik gorako eskailerak egin ziren.


1914 eta 1931 bitartean elizaurrearen alde bietako kaperak katekesi gela bihurtu ziren eta aldare nagusiaren oineko bi sarrera berriak ireki.

Hemen emandako azalpen historiko labur honek idazlan zabalagoa eskatzen du. Denbora gutxi barru ekingo diogulakoan gaude.

JOSE LUIS APERRIBAY
ASKE - 4 (1986)

SAN JOAN BATAIATZAILEA ELIZA

Mendebaldeko horma



ERABERRIALDIAK

- 1 .- XV. mendekoa
- 2 .- XVI. mende erdikoa
- 3 .- XIX. mende bukaera - XX. mende hasierakoa